



Iñaki Martiarena *Mattin* marrazkilaria, album berria eta kartela eskuetan hartuta, Donostian. JAGOBA MANTEROLA/FOKU

# Mattin: «Bi zintako esprintetik maratoni erdira pasatu naiz»

‘Belardo. Ba al zatoz?’ albuma egin du marrazkilaria • Duela ia 20 urte ‘Egunkaria’-n sortu zuen pertsonaiak bilakaera bat izan duela dio; orainoan, gune urbanoan kokatu du • BERRIAk argitaratu du

## Amagoia Gurrutxaga Uranga

«Liburu hau prozesu baten ondorio da. Duela ia hogeitau urte bidea hasi genuenetik, bilakaera bat egon da, eta, beharbada, liburu hau prozesu horren guztiaren ondorio da. Belardori dagoeneko bazegokion liburu bat ateratzea. *Belardologoek*, gero, esango dute zer iruditu zaien». *Belardologoak*. Iñaki Martiarena *Mattin* ilustratzaileak sortutako Belardo belar metaren zaleak. «Egon badaude. Kalean eta nonahi aurkitzen ditut. Esaten didate zein polita halako zinta, zein bitxia beste...».

Belardologoek laster izango dute hippide berria, *Belardo. Ba al zatoz?* albuma argitaratu baitio

BERRIAK. Egunkari honetan argitaratzen ditu Mattinek Belardoren istorioak, bi zintetan; larunbatero, *Mantangorri* gehigarria. *Euskaldunon Egunkaria*-n jaio zen, hala ere; *Xingola* gehigarria. 2020ko urriaren 20an. «Nik neuk ere ez nuen espero Belardok hogeitau urte betetzea. Baina bete egingo ditu. Eta pertsonaia guztiak bezala, bilakaera bat izan du urteotan; nik neuk bezalaxe. *Xingola*-tik *Mantangorri*-ra egindako jauzi horretan, izan da aldaketarik». Belardok tankera aldatu du, esaterako, bere txiste eta ateraldiak bazterrean utzi gabe bada ere.

*Mantangorri*-tik Belardo liburura ere, bada aldaketarik: «Liburu honek dakarren nobedade



## ‘Belardo. Ba al zatoz?’

**Egilea:** Iñaki Martiarena ‘Mattin’.  
**Argitaldaria:** BERRIA.  
**Orrialdeak:** 58.

magusia da Belardok kalera egin duela jauzi. Inguru urbano batera doa, eta horrek sortzen dizkion tentsioak eta gorabeherak dira liburuaren koska. Batzuetan hobeto eta besteetan okerrago ikusten du bere burua hor». Eta horretan datza, komikilariaren ustez, liburuaren gata eta piperra. Ez da hori, baina liburuaren berrikuntza bakarra: «Formatuan berrikuntza bat bada, dudarik gabe. Bi zintako esprint batetik maratoni erdi batera pasatu naiz, ia 60 orrialdeko liburu batean. Pertsonaia berrien galeria bat ere sortu da».

Aldaketok guztiok, liburuan, gidoiaren lanketan daude oinarrituta. «Duela bost bat urte sortu nuen album edo liburu itxura zeukan zerbaiten lehen zirriborro bat. Tiraderan utzi nuen, baina. Ohartu nintzen gidoia ez zela behar bezain landua». Belardok laster 20 urte beteko zituela jabetu zen arte. «Lankide batek esan zidan. Zirriborroa tiraderatik atera, eta berriz heldu nion lanari. Batez ere, gidoia aberasteari».

*Zarrakamalda* (Txalaparta, 2016) liburuan izandako esperientziak gidoiari heltzeko eta orrialde kopuru horretan ez galtzeko balio izan omen zion. «Bereziki saiatu naiz elkarrizketak zaintzen. Hor datzalako, nik uste, komiki baten funtsa. Gainontzean, beti bezala saiatu naiz disfrutatzen. Onomatopeiekin eta hizkuntza aberastasunarekin ere bai». Hala, Belardok ohikoak dituen hitz jokoak, jolasak daude *Ba al zatoz?* albumean.

## Gonbidapena irakurleari

Arlo estetikoari dagokionez, *Zarrakamalda*-ko zuri-beltzeko mundutik kolorera itzuli da Mattin. Irakurleen erantzunaren zain dago orain. Izenburuko *Ba al zatoz?* beretik egin nahi izan dio «gonbidapena» irakurleari, dienez. Zein irakurleri, baina, zehazki? «Haurrentzat, familientzat, zeinentzat ari ote zaren...

Momentu honetan nahiago dut horretan ez ito».

BERRIAREN webgunean eskura daiteke, [www.berria.eus/berri-laguna/denda/helbidean](http://www.berria.eus/berri-laguna/denda/helbidean). Liburu dendetan ere banatuko dute.

Aurkezpena, berriz, Durangoko Azokan egingo du Mattinek, Xaguganbaran, komiki tailer baten bitartez. «Nik atsegin dut halako esparruak sortzea; ezinbestekoak iruditzen zaizkit. Esparru grafiko horietan, haurrek zein helduek goza dezakete marrazten». Belardoren Tailerra –izen hori eman dio».



**Nik neuk ere ez nuen espero Belardok 20 urte betetzea. Bete egingo ditu. Eta bilakaera bat izan du urteotan»**

**Iñaki Martiarena ‘Mattin’**  
Komikilaria

komikilariak, abenduaren 7an izango da, 17:00etan hasita. «Egia da generoak desberdintzen ditudala, baina, era berean, nahastu egiten dira. Ilustrazioa, komikia, umore grafikoa... Denen nahasketa da lan hau».

Belardo ez da Matinek sortutako pertsonaia bakarra. Haren eskutik jaiotako dira, besteak beste, Bocarta detektibea (*Argia* aldizkarian), Kattalingorri (*Ipurbeltzen*) eta Ander-Graun (*Gaztetxulo*-n). Haur eta gazte literaturan, berriz, 1998an hasi zen ilustrazioak egiten. Gaur arte. Euskara eta komikigintza «oso esparru txikiak» direla nabarmendu du artistak. Baina ez diotela sortzeari uzten, hala ere. «Sortzen ari gara. Gurea ez da itzulpen bat. Eta eskaintzen ditugun tailer horiek ere ez dira aisialdi tailer hutsak. 30 urte-edo daramatzagu mundu honetan. Gauden etapan gaude. Honezkerok badugu ibilbide pertsonal eta profesional bat, eta transmisio bat egiten ari gara, neurri batean».

**Gipuzkoako**  
Bertsolari Txapelketa  
2019

Antokoztekoa  
www.berriozale.eus  
Laguntzian  
**berria**

Azaroak

17

17:00

Arrasate, Uarkape pilotalekua

Eñaut Martikorena Lizaso  
Agin Laburu Rezola  
Nerea Elustondo Plazaola  
Unai Mendizabal Jauregi  
Iñaki Apalategi Astigarraga  
Unai Gaztelumendi Arandia  
Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar

Finalaurrekoak

